

Sarrera

Proiektuaren helburua gizartean eragin positiboa izatea da; herritarren bizikidetzan laguntzea hain zuzen ere, komunitate bateko kideen arteko elkarrekintza sustatuz. Horretarako, webgune bat diseinua gauzatu da, bertan harpidetutako erabiltzaileek 20€-ko urteroko kuota sinbolikoen truk euren kontu propioa sortzeko aukera izango dute. Euren perfilean, beren buruaren deskribapen labur batez gain, egiteke duten lanen bat edota laguntza eskertuko zuten eremuren bat aipatu beharko dute. Gainontzeko erabiltzaileek ohar horiek irakurririk, laguntza eskaintzeko gai izango liratekeen baloratu beharko dute, eta erabiltzaile horrekin kolaboratzeko prest agertuz gero, harremanetan jarri webguneko chat-aren bitartez. Modu horretara, mesedeen elkartruke katea martxan jarri da dagoeneko, bezeroen solidaritatea bultzatzeaz gain, euren ingurune sozialetik haratago dauden pertsona ezberdinak ezagutzeko aukera emanez.